

Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.

Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

Esta acta se complementa con la grabación de las imágenes y audio de la sesión.

El código de identificación del archivo resultante es el siguiente:

651bfa4ba3bee1dc8e58de6242426b4e5d0704477a1639501b43e37652e3515d

Lotura honetan dago:

Está en este enlace:

<https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

2026.06.18

<u>TOLOSAKO UDALBATZAK 2026KO EKAINAREN 18AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA</u>	<u>ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA CELEBRADO EL DÍA 18 DE JUNIO DE 2026</u>
Tolosako Udaletxean, 2026ko ekainaren hemezortzian, 18:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Angel Martinez de Rituerto Arregui izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeo, udal batzarkide hauek agertu dira:	En el Ayuntamiento de Tolosa, siendo las 18:30 horas del día dieciocho de junio de 2026, tras la primera convocatoria, se reúne la Corporación para celebrar Pleno Ordinario. Presidida por el alcalde-presidente, Angel Martinez de Rituerto Arregui, y con la asistencia de los siguientes miembros de la Corporación municipal, para tratar el orden del día:

Alkate-lehendakaria / Alcalde-presidente:

Angel Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)

Bertaratutako Zinegotziak / Concejales asistentes:

Goiuri Eceiza Arandia (EH BILDU)
Ander Figuerido Zubiria (EH BILDU)
Aitor Aguirresarobe Murgui (EH BILDU)
Cristina Pelaez Errazquin (EH BILDU)
Aitzol Luis Garcia Azurmendi (EH BILDU)
Miren Garbiñe Marzol Ormazabal (EH BILDU)
Miren Yosune Sanz Vidal(EH BILDU)

Xarles Iturbe Pasaban (EAJ-PNV)
Maria Leire Zubeldia Rezola (EAJ-PNV)
Javier Francisco Zabala Sastre (EAJ-PNV)
Ainhoa Dominguez Landa (EAJ-PNV)
Jose Francisco Amantegui Zubiria (EAJ-PNV)
Iker Uson Gonzalez (EAJ-PNV)
Miren Biotxa Aguirre Ugalde(EAJ-PNV)

Jose Maria Villanueva Telleria (PSE-EE-PSOE)

Ez bertaratutako zinegotzia / Concejales ausente:

Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte (EH BILDU)

Udal idazkaria / Secretaria municipal:

Sara Berasategui Fuertes

Kontuhartzailea /Interventora:

Marta Alonso Sarasola

<u>Eguneko gai-zerrenda</u>	<u>Orden del día</u>
-----------------------------	----------------------

A) AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA

1. puntua. Onartzea, hala badagokio, 2026ko maiatzaren 28an egindako aurreko ohiko bilkuraren (05/2026) akta.

B) EBAZPEN ATALA

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorra.

2. puntua. Onartzea, hala badagokio, Tolosako Udaleko lan-hitzarmenaren aldaketa: musika eskolako zuzendaritza-taldeari orduak gehitzeari buruzko irizpena.

3. puntua. Onartzea, hala badagokio, "USABAL KIROLDEGIKO TABERNA-KAFETEGIAREN GAITZEA ETA USTIAPENA" obra emakida kontratuaren bermea itzultzeari buruzko irizpena.

4. puntua. Baimena ematea, hala badagokio, Arramele Siglo XXI, S.A. merkataritza-sozietateari, Alhondiga (-1 solairuko) lurpeko txandakako aparkalekuaren zerbitzu publikoaren kudeaketaren emakidadunari, tarifa-modalitate berri bat ezartzeko: gaueko bonuak.

5. puntua. Onartzea, hala badagokio, Alhondiga (-1 solairuko) lurpeko txandakako aparkalekuaren zerbitzu publikoaren prezio pribatu berriak.

A) APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.

Punto 1. Aprobar, en su caso, el acta de la sesión anterior (05/2026), ordinaria, celebrada el día 28 de mayo de 2026.

B) PARTE RESOLUTIVA

Comisión Informativa Permanente del Ámbito de Trabajo de Organización.

Punto 2. Aprobar, en su caso, el dictamen de la modificación del convenio laboral del Ayuntamiento de Tolosa: incremento de horas del equipo directivo de la escuela de música.

Punto 3. Aprobar, en su caso, el dictamen sobre la devolución de la garantía del contrato de concesión de obra para la "HABILITACIÓN Y EXPOLTACIÓN DE BAR-CAFETERÍA DEL POLIDEPORTIVO USABAL".

Punto 4. Autorizar, en su caso, a la mercantil Arramele Siglo XXI, S.A., concesionaria de la gestión del servicio público de aparcamiento rotacional subterráneo de Alhóndiga (planta -1), la implantación de una nueva modalidad tarifaria consistente en bonos nocturnos.

Punto 5. Aprobar, en su caso, los nuevos precios privados del servicio público de aparcamiento rotacional subterráneo de Alhóndiga (planta -1).

6. puntua. Onartzea, hala badagokio, Emeterio Arrese gizarte-zentroko taberna ustiatzeko kontratuaren jarraitutasuna, aldi baterako eta salbuespenez, eta kontratu berria formalizatu arte behar den denborarako.

7. puntua. Onartzea, hala badagokio, Emeterio Arrese gizarte-zentroko taberna ustiatzeko kontratuaren prezio pribatuen eguneraketa.

8. puntua. Onartzea, hala badagokio, Tolosako Udaleko 2026-2028ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketari buruzko irizpena.

9. puntua. Hasierako onarpena ematea, hala badagokio, 2026ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko 1-2026 irizpena.

10. puntua. Hasierako onarpena ematea, hala badagokio, 6/2026 kreditu-aldaketarako espedienteari. Kreditu gehigarrien modalitatekoa da.

11. puntua. Hasierako onarpena ematea, hala badagokio, 7/2026 kreditu-aldaketarako espedienteari. Kreditu gehigarrien modalitatekoa da.

12. puntua. Onartzea, hala badagokio, itxitako ekitaldiko fakturen irizpena.

Lurraldea Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorra.

13. puntua. Onartzea, hala badagokio, I. eranskinean zerrendatutako instalazioak, eraikuntzak eta obrak interes berezikoak edo udal-onurakoak direla deklaratzeko.

Punto 6. Aprobar, en su caso, la continuidad, con carácter temporal y excepcional, del contrato para la explotación del bar del centro social Emeterio Arrese, y por el tiempo que resulte necesario hasta la formalización del nuevo contrato.

Punto 7. Aprobar, en su caso, la actualización de los precios privados del contrato para la explotación del bar del centro social Emeterio Arrese.

Punto 8. Aprobar, en su caso, el dictamen sobre la modificación del Plan Estratégico de Subvenciones de 2026-2028 del Ayuntamiento de Tolosa.

Punto 9. Aprobación inicial, en su caso, el dictamen 1-2026 de modificación del anexo de subvenciones de 2026.

Punto 10. Aprobar inicialmente, en su caso, el expediente de modificación de créditos 6/2026 en la modalidad de créditos adicionales.

Punto 11. Aprobar inicialmente, en su caso, el expediente de modificación de créditos 7/2026 en la modalidad de créditos adicionales.

Punto 12. Aprobar, en su caso, el dictamen de las facturas del ejercicio cerrado.

Comisión Informativa Permanente del Ámbito de Trabajo de Territorio.

Punto 13. Aprobar, en su caso, la declaración de interés especial o de utilidad municipal de las instalaciones, construcciones y obras relacionadas en el Anexo I.

**Herritarrak Lan Esparruko Informazio
Batzorde Iraunkorra**

Ez du ezer aurkeztu.

Proposamenak

Ez da ezer aurkeztu.

**Comisión Informativa Permanente del Ámbito
de Trabajo de Ciudadanía**

No presenta nada.

Proposiciones

No se presenta nada.

C) INFORMAZIO ETA KONTROL ATALA

C) PARTE DE INFORMACIÓN Y CONTROL

14. puntua. Berri ematea: Aparkatze arautuaren 1. eremua aldaketa (AAE).

Punto 14. Dar cuenta de la modificación de la zona 1 del área de estacionamiento regulado (AER).

15. puntua. 4/2026 kreditu-aldaketaren berri ematea. Kreditu-gaikuntzaren modalitatekoa da.

Punto 15. Dar cuenta sobre la modificación de créditos 4/2026, modalidad de habilitación de créditos.

16. puntua. 5/2026 kreditu-aldaketaren berri ematea. Kreditu-gehigarrien modalitatekoa da.

Punto 16. Dar cuenta sobre la modificación de créditos 5/2026, modalidad de créditos adicionales.

17. puntua. 2025eko aurrekontuen likidazioen berri ematea.

Punto 17. Dar cuenta sobre las liquidaciones de los presupuestos de 2025.

18. puntua. Alkateak eta zinegotzi delegatuek emandako dekretuen berri ematea.

Punto 18. Dar cuenta de los decretos dictados por el alcalde y concejales/as delegados/as.

19. puntua. Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematea.

Punto 19. Dar cuenta de los Acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno Local.

20. puntua. Akordio-proposamena, EH Bildu eta EAJ-PNV udal taldeek elkarrekin aurkeztuta, foruen abolizioaren 150. urteurrena eta alkateen mugimenduaren 50. urteurrena dela eta.

Punto 20. Propuesta de acuerdo presentada conjuntamente por los grupos municipales EH Bildu y EAJ-PNV con motivo del 150 aniversario de la abolición de los fueros y del 50 aniversario del movimiento de alcaldes.

21. puntua. Galderak eta eskaerak.

Punto 21. Ruegos y Preguntas.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

El alcalde-presidente da inicio al pleno para tratar los siguientes asuntos:

1. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2026KO MAIATZAREN 28AN EGINDAKO AURREKO OHIKO BILKURAREN (05/2026) AKTA.

PUNTO 1. APROBAR, EN SU CASO, EL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR (05/2026), ORDINARIA, CELEBRADA EL DÍA 28 DE MAYO DE 2026.

Izenburuan aipatutako akta aztertu dute.
Batzarkideek aho batez onartu dute.

Han examinado el acta mencionada en el título.
Aprobada por unanimidad por los miembros de la Corporación.

2. puntua. Onartzea, hala badagokio, Tolosako Udaleko lan-hitzarmenaren aldaketa: musika eskolako zuzendaritza-taldeari orduak gehitzeari buruzko irizpena.

Punto 2. Aprobar, en su caso, el dictamen de la modificación del convenio laboral del Ayuntamiento de Tolosa: incremento de horas del equipo directivo de la escuela de música.

Espedientearen kodea: 2026PHIT0001

Código de expediente: 2026PHIT0001

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde
Iraunkorraren 2026ko ekainaren 10eko irizpena

Dictamen de la Comisión Informativa del Ámbito
de trabajo de Organización de 10 de junio de
2026

IKUSIRIK

Lehen.- Musika Eskolako zuzendariak idatzi bat aurkeztu du non, beste hainbat gaien artean, Musika Eskolako zuzendaritza taldeak lan hauei dagozkien liberazio orduak handitzeko eskaera egiten duen. Zehazki hauxe da eskatzen duena:

ZUZENDARITZA KARGUA	ORDU LEKTIBO MURRIZKETA
Zuzendaria	18 ordu
Idazkaria	9 ordu
Ikasketa burua	9 ordu

Bigarrena.- Gaur egun zuzendaritza karguak dituzten udal langileak honako liberazio orduak dituzte:

ZUZENDARITZA KARGUA	ORDU LEKTIBO MURRIZKETA
Zuzendaria	12 ordu
Idazkaria	6 ordu
Ikasketa burua	6 ordu

GAIAREN AZALPENA

Lehenen. Udalhitz lan hitzarmenak erregulatzen dituen lan baldintzen akordioak honakoa adierazten du Musika Eskolako zuzendaritza karguen inguruan:

1-“15. artikulua.- Udal Kontserbatorioetako eta Musika Eskoletako irakasleen asteko lanaldia

3. Zuzendaritza Karguren bat daukan irakasleak asteko lanaldiaren banaketa hau izango du:

- a) **Zuzendaria:** 33 ordu zentroan bertan egoteko eta **8 irakastordu gutxiago.**
- b) Saileko Buru edo Saileko Arduraduna: 33 ordu zentroan bertan egoteko eta 2 irakastordu gutxiago.
- c) Beste Zuzendaritza Kargu Batzuk, esaterako, Ikasketa Burua, **Idazkaria** eta Zuzendariordea: 33 ordu zentroan bertan egoteko, **4 irakastordu gutxiago.”**

Bigarrenen. Tolosako Udalbatzak 2018ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Zuzendari eta Idazkari akademikoaren lanpostuen ordu lektiboen murrizketa berri bat onartu zuen eta zuzendaritza karguen orduen gehikuntza, bai zuzendariarena baita idazkari akademikoarena ere, zehazki hauxe:

“ Lehenen.- Tolosako udaleko lan hitzarmena erregulatzen dituen lan baldintzen akordioa aldatzea Musika Eskolako zuzendaritza karguen inguruan eta bere 15 artikuluen erredakzio berria onartzea:

2- 15. artikulua.- Udal Kontserbatorioetako eta Musika Eskoletako irakasleen asteko lanaldia

3. Zuzendaritza Karguren bat daukan irakasleak asteko lanaldiaren banaketa hau izango du:

- a) **Zuzendaria:** 33 ordu zentroan bertan egoteko eta **12 irakastordu gutxiago.**
- b) Saileko Buru edo Saileko Arduraduna: 33 ordu zentroan bertan egoteko eta 2 irakastordu gutxiago.
- c) Beste Zuzendaritza Kargu Batzuk, esaterako, Ikasketa Burua, **Idazkaria** eta Zuzendariordea: 33 ordu zentroan bertan egoteko, **6 irakastordu gutxiago.”**

Hirugarrena.- 2025/2026 ikasturtetik aurrera, “Ikasketaburu” figura sortu da Eusko Jaurlaritzako maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuaren ondorioz. Kasu honetan, **sei ordu lektiboko** murrizketa du lan hauek egiteko.

Laugarrena.- Behin eskaera aztertu ondoren, zuzendaritza taldearekin honako ordu lektiboen murrizketa berria proposatu eta adostu da:

ZUZENDARITZA KARGUA	GAUR EGUNGO ORDU LEKTIBO MURRIZKETA	ORDU LEKTIBO MURRIZKETA PROPOSAMEN BERRIA
Zuzendaria	12 ordu	15 ordu
Idazkaria	6 ordu	9 ordu
Ikasketa burua	6 ordu	9 ordu

Bosgarrena.- Aldaketa hau bideratzeko udal hitzarmenak ezarritako baldintzak ez direnez betetzen, aipatu hitzarmena aldatzeko prozedura hasi beharko litzateke eta lan baldintzen hobekuntza bat bezala izapidetu.

Seigarrena.- Aldaketa hau onartuko balitz, urtean 9 irakastordu emateko irakasle bat baino gehiago kontratatu beharko litzateke eta honek urtean 18.886 eurotako kostua izango luke.

ONARTZEKO PROZEDURA

Hauexek lirateke eman beharreko pausoak udaleko hitzarmena aldatu ahal izateko:

Lehena.- Langileen ordezkariekin negoziatu beharko da aipatu lan baldintzen aldaketa hau; honela, 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarenak, 37.1.m) artikuluan ezarritakoari jarraiki, negoziatzeko gai izango dira, Herri Administrazioetako bakoitzak dituen eskumenei lotuta, bakoitzak bere eremuan eta kasuan-kasuan legez dagokion irismena izanik, udal enplegatu publikoei eragiten dieten lan baldintzen aspektuei buruz. Zentzu honetan, gai hau 2026ko ekainaren 9an ordezkari sindikalekin negoziatu da.

Bigarrena.- Udaleko Osoko Bilkuraren onespena beharko du udal hitzarmenaren aldaketa honek, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikuluen arabera, Udalbatzak eskuduntza baitu gai hau onartzeko eta aurretik antolakuntzako Batzorde Informatiboaren irizpena jaso beharko da.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2026ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen.

Aldeko bozkak: Kristina Pelaez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, ahobatez honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Lehenena.- Tolosako udaleko lan hitzarmena erregulatzen dituen lan baldintzen akordioa aldatzea Musika Eskolako zuzendaritza karguen inguruan eta bere 15 artikuluen erredakzio berria onartzea:

3- 15. artikulua.- Udal Kontserbatorioetako eta Musika Eskoletako irakasleen asteko lanaldia

3. Zuzendaritza Karguen bat daukan irakasleak asteko lanaldiaren banaketa hau izango du:

a) **Zuzendaria**: 33 ordu zentroan bertan egoteko eta **15 irakastordu gutxiago**.

b) Saileko Buru edo Saileko Arduraduna: 33 ordu zentroan bertan egoteko eta 2 irakastordu gutxiago.

c) Beste Zuzendaritza Kargu Batzuk, esaterako, **Ikasketa Burua**, **Idazkaria** eta Zuzendariordea: 33 ordu zentroan bertan egoteko, **9 irakastordu gutxiago**."

Bigarrenena.- Akordio hau 2026ko irailaren 1etik aurrera indarrean sartzea.

Hirugarrenena.- Akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko egoitza elektronikoan argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Miren Yosune Sanz Vidal, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Tolosako udaleko lan-hitzarmenaren aldaketa: musika eskolako zuzendaritza-taldeari orduak gehitzeari buruzko irizpena.

**3. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO,
"USABAL KIROLDEGIKO TABERNA-
KAFETEGIAREN GAITZEA ETA USTIAPENA"
OBRA EMAKIDA KONTRATUAREN BERMEA
ITZULTZEARI BURUZKO IRIZPENA.**

**PUNTO 3. APROBAR, EN SU CASO, EL
DICTAMEN SOBRE LA DEVOLUCIÓN DE LA
GARANTÍA DEL CONTRATO DE CONCESIÓN
DE OBRA PARA LA "HABILITACIÓN Y
EXPOLTACIÓN DE BAR-CAFETERÍA DEL
POLIDEPORTIVO USABAL".**

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio
Batzarde Iraunkorraren 2026ko ekainaren 10eko
irizpena.

Dictamen de la Comisión Informativa del Ámbito
de trabajo de Organización de 10 de junio de
2026.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosa Lantzen, S.A. sozietateko administrazio-kontseiluak 2005eko uztailaren 15ean Tolosako Usabal kiroldegiko taberna-kafetegia gaitzeko eta ustiatzeko kontratua lizitzatzeko baldintza-pleguak onartu zituen.

BIGARRENA.- 2006ko martxoaren 10ean Tolosa Lantzen, S.A. sozietateko administrazio-kontseiluak erabaki zuen modu zuzenean Bidensabal 2006, S.L. enpresari adjudikatzea Tolosako Usabal kiroldegiko taberna-kafetegia gaitzeko eta ustiatzeko kontratua. Kontratua formalizatu aurretik, esleipendunak 12.000 euroko behin betiko bermea eratu zuen, Administrazio Klausula Partikularren Pleguan aurreikusitakoaren arabera.

HIRUGARRENA.- 2006ko ekainaren 8an formalizatu zen zegokion kontratua Tolosa Lantzen, S.A. eta Bidensabal 2006, S.L. enpresen artean 25 urtez, kontratautako prestazioak gauzatzuz. Edonola ere, klausulen artean aukera zegoen kontratua hirugarren bati lagatzeko.

LAUGARRENA.- 2012ko urriaren 8an egindako bilkuran Tolosa Lantzen, S.A. sozietateko administrazio-kontseiluak onartu zuen Bidensabal 2006, S.L. eta Geroegitekoborda, S.L. enpresek

ANTECEDENTES

PRIMERO.- El Consejo de Administración de Tolosa Lantzen, S.A. aprobó el 15 de julio de 2005 los pliegos de condiciones para la licitación del contrato de habilitación y explotación del bar-cafetería del polideportivo Usabal de Tolosa.

SEGUNDO.- Con fecha 10 de marzo de 2006 el Consejo de Administración de Tolosa Lantzen, S.A. acordó adjudicar directamente a la empresa Bidensabal 2006, S.L. el contrato de habilitación y explotación del bar-cafetería del polideportivo Usabal de Tolosa. Previamente a la formalización del contrato, el adjudicatario constituyó una garantía definitiva por importe de 12.000 euros, de acuerdo con lo previsto en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

TERCERO.- Con fecha 8 de junio de 2006 se formalizó el correspondiente contrato entre las empresas Tolosa Lantzen, S.A. y Bidensabal 2006, S.L. por un periodo de 25 años, mediante la ejecución de las prestaciones contratadas. En cualquier caso, entre las cláusulas se incluía la posibilidad de ceder el contrato a un tercero.

CUARTO.- En sesión celebrada el día 8 de octubre de 2012, el Consejo de Administración de Tolosa Lantzen, S.A. aprobó la solicitud de cesio formulada por las empresas Bidensabal 2006, S.L. y

egindako zessio-eskaera. Horrenbestez, 2012ko urriaren 9ko datarekin formalizatu zen kontratu berria.

BOSGARRENA.- 2020ko abenduaren 31n Tolosa Lantzen, S.A. sozietatea desegin zen eta Tolosako Udala subrogatu zen eskubide eta betebeharrak guztietan.

SEIGARRENA.- 2025eko uztailaren 9an, Geroegitekoborda, S.L. merkataritza sozietatearen idazki bat sartu zen Tolosako Udaleko erregistro orokorrean, 2025-9581 sarrera zenbakiarekin. Idazki horretan, kontratua Zaska Taberna, S.L. merkataritza sozietateari lagatzeko eskatzen zen.

ZAZPIGARRENA.- 2025eko abenduaren 8an, Geroegitekoborda, S.L. enpresak kontratatutako prestazioak gauzatu zirela egiaztatu zuen, eta 2025eko abenduaren 17an notarioaren aurrean sinatu zuen lagapen-kontratua. Tolosako Udalak 2025eko abenduaren 18ko osoko bilkuran baliozkotu zuen egintza hori.

ZORTZIGARRENA. – 2025eko urriaren 30ean, Zaska Taberna, S.L. enpresa lagapen-hartzaileak behin betiko bermea eratu du.

BEDERATZIGARRENA.- Honako alderdi hauek berrikusi dira:

Geroegitekoborda, S.L. Por lo tanto, el nuevo contrato se formalizó con fecha 9 de octubre de 2012.

QUINTO.- Con fecha 31 de diciembre de 2020 se disuelve la sociedad Tolosa Lantzen, S.A., subrogándose el Ayuntamiento de Tolosa en todos los derechos y obligaciones.

SEXTO.- Con fecha 9 de julio de 2025 tiene entrada en el registro general del Ayuntamiento de Tolosa escrito de la mercantil Geroegitekoborda, S.L. con el número de entrada 2025-9581. En dicho escrito se solicitaba la cesión del contrato a la mercantil Zaska Taberna, S.L.

SÉPTIMO.- Con fecha 8 de diciembre de 2025, la mercantil Geroegitekoborda, S.L. certifica la ejecución de las prestaciones contratadas y el 17 de diciembre de 2025 firma el contrato de cesión ante notario, siendo este acto validado el el Pleno del 18 de diciembre de 2025 por el Ayuntamiento de Tolosa.

OCTAVO.- El 30 de octubre de 2025, la empresa cesionaria Zaska Taberna, S.L., ha constituido la garantía definitiva.

NOVENO.- Se revisan los siguientes aspectos:

	BAI/EZ - SI/NO	DATA - FECHA
1.-Esleitutako eta formalizatutako kontratua. Contrato adjudicado y formalizado.	Bai / sí	2006/06/08 - 08/06/2006
2.-Behar bezala eratutako behin betiko bermea. Garantía definitiva correctamente	Bai / sí	2012/10/09 - 09/10/2012

constituida.		
3.-Kontratuaren lagapena formalizatzea Formalización de la cesión del contrato	Bai / sí	2025/12/17 - 17/12/2025
4.-Bermea berria eratzea Constitución de la nueva garantía	Bai / sí	2025/10/30 - 30/10/2025

HAMARGARRENA.- Honako egitate hauek egiaztatu dira:

x.- Egiteke dagoen zigorrik ez egotea.

x.- Kontratatari egotz dakizkiokeen kalte edo erantzukizunik ez egotea.

x.- Kontratua suntsiarazteko oraindik egin gabeko prozedurarik ez dagoela egiaztatzea. Eta kontratua suntsiaraziz gero, suntsiarazpen hori ez zela kontratistaren errua izan.

DÉCIMO.- Se constatan los siguientes hechos:

x.- Inexistencia de penalidades pendientes.

x.- Inexistencia de daños o responsabilidades imputables al contratista.

x.- Comprobación de inexistencia de procedimientos de resolución contractual pendientes. Y en caso de haberse resuelto el contrato, que dicha resolución no fue culpa del contratista.

OINARRI TEKNIKOAK ETA JURIDIKOAK

Lehenengoa. – Sektore Publikoko Kontratuaren 9/2017 Legearen 214. artikulua kontratuaren lagapena arautzen du, eta enpresa lagapen-hartzailearen subrogazioa ezartzen du hasierako kontratatari dagozkion eskubide eta betebeharrak guztietan.

Bigarrenkoa. – Sektore Publikoko Kontratuaren 9/2017 Legearen 106.etik 111.era bitarteko artikuluen arabera, behin betiko bermea kontratua behar bezala gauzatzearen eta hortik eratorritako erantzukizunen erantzule da

Hirugarrena. – SPKLren 111. artikulua arabera, kontratuaren likidazioa onartu

FUNDAMENTOS TÉCNICOS Y JURÍDICOS

Primero.– El artículo 214 de la Ley 9/2017 de contratos del Sector Público regula la cesión de los contratos, estableciendo la subrogación de la empresa cesionaria en todos los derechos y obligaciones correspondientes al contratista inicial.

Segundo.– De conformidad con los artículos 106 a 111 de la Ley 9/2017, de Contratos del Sector Público, la garantía definitiva responde de la correcta ejecución del contrato y de las responsabilidades derivadas del mismo.

Tercero.– Conforme al artículo 111 LCSP, aprobada la liquidación del

ondoren eta berme-epea igaro eta kontratistari eska dakizkiokeen erantzukizunik ez badago, bidezkoa izango da behin betiko bermea itzultzea edo ezereztea.

Laugarrena. – Kontratuaren betearazpena aztertu ondoren, prestazioak behar bezala gauzatu direla uste da, preskripzio teknikoaren eta administratiboen arabera.

Bosgarrena.- Tolosako Udalbatza da obra emakida-kontratu honen kontratazio-organoa.

Aurreko guztia aintzat harturik, Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan-Esparruko Batzorde Informatiboak, 2026ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du:

Aldeko bozkek: Miren Yosune Sanz Vidal, Cristina Peláez Errazquin, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, María Estibaliz Kortajarena Ugarte, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen dio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENENGOA.- Geroegitekoborda SL kontratistari "USABAL KIROLDEGIKO TABERNA-

contrato y transcurrido el plazo de garantía sin responsabilidades exigibles al contratista, procederá la devolución o cancelación de la garantía definitiva.

Cuarto.- Examinada la ejecución contractual, se considera que las prestaciones han sido correctamente ejecutadas conforme a las prescripciones técnicas y administrativas.

Quinto.- El órgano de contratación de este contrato de concesión de obra es el Pleno del Ayuntamiento de Tolosa.

En virtud de todo lo anterior, la Comisión Informativa del Ámbito de Organización del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión celebrada el día 10 de junio de 2026, ha analizado y votado la propuesta de dictamen:

Votos a favor: Miren Yosune Sanz Vidal, Cristina Peláez Errazquin, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, María Estibaliz Kortajarena Ugarte, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Ainhoa Domínguez Landa y José María Villanueva Telleria.

Por tanto, por unanimidad, La Comisión propone al Pleno de la Corporación la aprobación del siguiente dictamen:

DICTAMEN

PRIMERO.- Aprobar la devolución de la garantía del contrato de concesión de obra "HABILITACIÓN Y

KAFETEGIAREN GAITZEA ETA USTIAPENA'' obra emakida kontratuaren 12.000 euroko bermea itzultzea.

BIGARRENA.- Honako hau Udaleko Diruzaintzari helaraztea, fidantza itzultzeko edo abala edo kauzio-asegurua ezerezteko, edo, hala badagokio, Geroegitekoborda SL-ren aldeko konpentsazioa egin dezan.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

EXPLOTACIÓN DE BAR-CAFETERÍA DEL POLIDEPORTIVO USABAL" por importe de 12.000 euros a Geroegitekoborda, S.L.

SEGUNDO.- Dar traslado de la presente a Tesorería municipal para la devolución de la fianza o cancelación del aval o seguro de caución, o para que proceda en su caso, a la compensación correspondiente en favor de Geroegitekoborda, S.L.

TERCERO.- Notificar el presente acuerdo al interesado

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

El resultado de la votación del Pleno de la Corporación ha sido el siguiente:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Miren Yosune Sanz Vidal, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Votos a favor: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Miren Yosune Sanz Vidal, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Iker Uson Gonzalez y Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du "USABAL KIROLDEGIKO TABERNA-KAFETEGIAREN GAITZEA ETA USTIAPENA" obra emakida kontratuaren bermea itzultzeari buruzko irizpena.

Por lo tanto, el Pleno de la Corporación, por unanimidad, ha aprobado definitivamente el dictamen sobre la devolución de la garantía del contrato de concesión de obra para la "HABILITACIÓN Y EXPOLTACIÓN DE BAR-CAFETERÍA DEL

POLIDEPORTIVO USABAL”.

4. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, SEXU INDARKERIAREN AURREAN UDAL ZERBITZU ETA ERAIKIN PUBLIKOETAN JARDUTEKO PROTOKOLOA.

PUNTO 4. APROBAR, EN SU CASO, EL PROTOCOLO DE ACTUACIÓN ANTE LA VIOLENCIA SEXUAL EN LOS SERVICIOS Y EDIFICIOS PÚBLICOS MUNICIPALES.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio
Batzorde Iraunkorraren 2026ko ekainaren 10eko
irizpena.

Dictamen de la Comisión Informativa del Ámbito
de trabajo de Organización de 10 de junio de
2026..

Dict
de t
202

IKUSIRIK

LEHENA.- Emakumeen aurkako indarkeria matxista nazioartean aitortzen dela neska txikien, neska nerabeen eta emakume helduen oso kopuru handiari, beren seme-alabei eta ondorioz gizarte osoari eragiten diola giza eskubideen urraketatzat. Sexuindarkeria ez dela ulertu behar soilik erasotzailearen eta erasotutako pertsonaren arteko harreman batean, baizik eta egitura sozial matxista batean, non boteredesorekek emakumeen segurtasuna eta autonomia mugatzen dituztela.

BIGARRENA.- Erreferentziazko araudiak aitortzen duela indarkeria hori desberdintasunaren eta emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman asimetrikoen ondorio dela, hala nola soldata-arrakala, pobreziaren feminizazioa edo emakumeek erabakiak hartzeko eremuetan duten ordezkaritza txikia.

HIRUGARRENA.- Definitzen dela emakumeek gizarte-egitura matxistaren barruan bizitzaren eremu guztietan jasaten dutela indarkeria estruktural eta sistemikoa, gizarteantolamenduarekin lotuta dagoela eta emakumeek gizartean eta familian sexuaren arabera betetzen dituztela funtzioen eta erantzukizunen banaketa tradizionalan oinarritzen dena, non emakumeek gizonen mendeko lekua duten.

LAUGARRENA.- Adinak, nazionalitateak, jatorriak, desgaitasunak, administrazioegoerak, pobreziak edo autonomia ekonomikorik ezak, elkarren artean gurutzatzen diren beste faktore batzuekin batera, eragina dute indarkeria-egoerak larriagotzeko eta emakumeek beren eskubideak eraginkortasunez baliatzeko duten egoera eta egoera desabantailatsuagoa izateko

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.-. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren VII. kapituluak *Emakumeen aurkako indarkeria*, mugarri bat dakar arlo horretako legerian, bereziki indarkeria matxistaren aurrean erakundeek erantzuteko duen

garrantziagatik: indarkeria motak eta moduak zabaltzen ditu (genero-indarkeriatik harago), bai eta zuzenbidezko subjektuaren eremua ere (inguruan bizi diren haurrak, nerabeak eta beste pertsona batzuk biktimatzen hartuta); esku-hartzean begirada interseksionala eta arretaren pertsonalizazioa txertatzen dituela azpimarratzen du, eta berriz biktimizatzea saihesten duela eta biktimen eskubideak eta ahalduak esku-hartzearen erdigunean jartzen dituela.

BIGARRENA.- Tolosako Udalaren lehentasunezko estrategietako bat dela ahalik eta koordinazio eta lankidetzaren handiena sustatzea udalerriko erakundeek, talde feministek, elkarteek eta gizarte-eragileek artean, emakumeek aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta integrala bermatzeko.

HIRUGARRENA.- Tolosako Udalak bi jardura-protokolo ditu indarkeria matxistaren eta sexu-erasoen biktimei ematen zaien arreta hobetzeko. Lehen protokoloa 2014an sinatu zen.

Hartutako konpromisoa dela-eta, beharrezkotzat jo zen bigarren protokolo bat egitea (laster sinatuko da), gizartearen eta legeen aurrerapenera ondorioz, bai ikuspegiari dagokionez, bai arretari dagokionez, Tolosako egungo eta etorkizuneko errealitateari behar bezala erantzun ahal izateko.

LAUGARRENA.- Jarduketa-irizpideak bateratzeko eta erantzun egokia, azkarra eta koordinatua ziurtatzeko, Udalak garrantzi bereziki jo zuen udal-erakundeetan eta zerbitzu publikoetan lan egiten duten langileei tresnak eta ezagutza ematea, zerbitzuetan eman daitezkeen sexu-erasoak behar bezala identifikatu, artatu eta kudeatu ahal izan ditzaten.

Beraz Protokolo honen helburua da, Tolosako Udaleko eraikin eta zerbitzu publikoetan sexu-indarkeriak prebenitzeko eta ezabatzeke jardura-esparrua ezartzea, baita erasoak jasan dituzten pertsonen segurtasuna, konfidentzialtasuna eta eskubideak bermatzeko behar diren mekanismoak ezartzea, arreta integrala eta koordinatua eskaintzeko, genero-ikuspegitik eta ikuspegi interseksionaletik.

Hartzaileak: Protokolo hau Tolosako Udalaren eraikin edo zerbitzu publikoetan sexuindarkeria jasan duten edo jasaten ari diren pertsona guztiei zuzenduta dago. Arreta berezia jarriko zaie elkargune ugari dituzten pertsonen, hala nola jatorriari, arrazari edo genero-eskema tradizionalak hausten dituzten pertsonen.

Esku-hartzeko prozedura bat ondo egiteko, printzipio gidariek oinarritu behar da, baina profesionalak modu eraginkorrean aplikatu dezaten, ezinbestekoa da pertsona bakoitzak bere jardura profesionalaren barnean bertan eta integrazioa. Printzipio horiek praktikan jartzeak pertsona erasotzaileen ongizatea eta segurtasuna bermatzen du, esku-hartzea koherenteagoa eta eraginkorragoa eginez.

- 1.- Egora posibleak: Kasua larria baldin bada eta hain larria ez bada
- 2.- Protokoloa aktibatzea
- 3.- Esku hartzea
- 4.- Gertatutakoaren laburpena jasotzen duen txostena
- 5.- Ebaluazio-fitxa betetzea
- 6.- Sexu indarkeriari aurre egiteko baliabideak

Horrelako irizpideak onartzeko eskumena alkateak duela oro har, kontuan hartuta zer dioen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1.s) artikuluan. Ordea, irizpideen izaera eta hedadura ikusirik, proposamena da Udalbatzak onartzea, 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua oinarri hartuta.

Tolosako Udaleko Herritarrak Batzordeak, 2026ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko botoak:** Aitzol Luis Garcia, Maria Estibalitz Kortejarena, Goiuri Ezeiza, Aitor Agirresarobe, Joxe Mari Villanueva, Iker Uson, Maria Leire Zubeldia.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

Aurreko guztia aintzat harturik, hona hemen nire

IRIZPENA

LEHENA.- Sexu indarkeriaren aurrean udal zerbitzu eta eraikin publikoetan jarduteko protokoloari onespena ematea

BIGARRENA.- Sexu indarkeriaren aurrean udal zerbitzu eta eraikin publikoetan jarduteko protokoloa onartu ondoren, laburpen bat argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, adieraziz dokumentua eskuragarri dagoela udal-webgunean eta Tolosako Udaleko iragarki-taulan 20 lanegunez.

HIRUGARRENA.- Udal zerbitzu eta eraikinetan lana egiten duten langileei Protokoloa aurkeztea eta prestakuntza saio bat antolatzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Miren Yosune Sanz Vidal, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udaltzaz, aho batez, onartu du Sexu indarkeriaren aurrean Udal zerbitzu eta eraikin publikoetan jarduteko Protokoloa.

5. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ALHONDIGA (-1 SOLAIRUKO) LURPEKO TXANDAKAKO APARKALEKUAREN ZERBITZU PUBLIKOAREN PREZIO PRIBATU BERRIAK.

PUNTO 5. APROBAR, EN SU CASO, LOS NUEVOS PRECIOS PRIVADOS DEL SERVICIO PÚBLICO DE APARCAMIENTO ROTACIONAL SUBTERRÁNEO DE ALHÓNDIGA (PLANTA -1).

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde
Iraunkorraren 2026ko ekainaren 10eko irizpena..

Dictamen de la Comisión Informativa del Ámbito
de trabajo de Organización de 10 de junio de
2026.

AURREKARIAK

LEHENA.- Tolosako Udalak, 2006ko abenduaren 27an egindako osoko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste: aparkalekuak eta gerontologia-zentroa, eguneko zentroa eta adinekoentzako tutoretzapeko apartamentuak egiteko, eraikitzeke eta ustiatzeko proiektua idazteko emakidaren espediente onartzea, bai eta horien ekipamendua eta mantentze-lanak egitea ere.

Kontratu hori Tokiko Gobernu Batzordeak 2006ko martxoaren 26an egindako bilkuran esleitu zen, eta 2007ko apirilaren 4an formalizatu zen, Jokin Bildarratz jaunak, Tolosako Udaleko alkate gisa, eta Ernesto Sainz Lanchares jaunak, Arkaitza SA, Arramele Siglo XXI eta Residencia S.Cosme eta S. Damián merkataritza etxeek osatzen duten ALHONDIGA aldi baterako enpresa-elkartearen izenean eta ordezkaritza

BIGARRENA.- Solairuko txandakako aparkalekuaren ustiapenari dagokionez soilik (-1), ustiatzeko baldintza espezifikoak Baldintza Orokorren Agiriari erantsitako I. Dokumentuan jasotzen dira. Agiri horrek Alondigako aparkalekua egikaritzeko, eraikitzeke eta ustiatzeko proiektuaren idazketa esleitzeko lehiaketa publikoa arautuko duten baldintza tekniko, ekonomiko eta juridiko administratiboen agiria jasotzen du.

Dokumentu horren 13. artikulua, txandakako aparkalekuei buruzkoak, honako hau ezartzen du: emakidadunak aplikatu beharreko tarifak aurkeztuko ditu, eta tarifa horiek urtero berrikusiko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko KPI aplikatuta. Tarifak Kontsumitzaileen Babesa Hobetzeko Legearen arabera aurkeztuko dira.

HIRUGARRENA.- 2025eko abenduaren 3an, Fernando Echezortu Manterolak (72443342N) ARRAMELE SIGLO, XXI, S.A. merkataritza-sozietatearen ordezkari gisa, Alhondigako lurpeko aparkalekuaren zerbitzu txandakako publikoaren kudeaketaren emakidadunak, idazki bat aurkeztu zuen 15782 sarrera erregistroaren zenbakiarekin, eta, horren bidez, udal-baimena eskatu zuen hileko eta prezio murriztuko gaueko bonu berriak ezartzeko.

Ondorengoa proposatzen du:

“Urteko abonua berezia 1: 18:00-9:00* (gehienez 50 abonua): 360€/urtea

Urteko abonua berezia 2: 20:00-9:00* (gehienez 50 abonua): 240€/urtea

*Urteko abonua berezietan ez dira sartzen inauteriak, San Juanak eta eguberriak (egunak zehaztuko dira)”

LAUGARRENA. Tolosako ARRAEMELE SIGLO XXI S.A. merkataritza-sozietateari. Alhondigako lurpeko zerbitzu txandakako publikoaren emakidaduna kontratuan bonu berriak ezartzea 2026COBR0001 espedientean izapidetzen ari da.

BOSGARRENA. Tolosako Udaleko erregistroan, 2026ko ekainaren 1ean, 2026/8118 sarrera-erregistro zenbakiarekin, ECHEZORTU, MANTEROLA, FERNANDOK (72443342N), ARRAEMELE SIGLO XXI S.A.aren izenean, honako eskaera hau egin duela:

“Solicitamos la implantación de dos nuevos sistemas de ABONOs de aparcamiento para poner en marcha en el parking de Alhondiga con las siguientes características:

1. Calendario (Fecha entrada en vigor):

90 abonos especiales de 6 meses de duración comprendidos entre el 1 de julio de 2026 hasta el 31 de diciembre de 2026.

Fecha de entrada en vigor el 1 de julio de 2026. NOTA: No se podrá hacer uso de estos abonos en los días señalados a continuación:

18-19 SEPT: Feria de la cerveza.

31 OCT: Tolosa Goxua

21 NOV: Babarruna Eguna

19 DIC: Azoka Berezia

23, 24, 26, 29, 30, 31 DIC Navidades

2. Número de abonos, horario e importe económico:

BONO ESPECIAL 1 (Máximo 40 abonos): Horario de 18:00 a 9:00 / 180€/abono

BONO ESPECIAL 2 (Máximo 50 abonos): Horario de 20:00 a 9:00 / 120€/abono.

3. Condiciones de uso:

- El uso del abono sólo será válido durante el calendario propuesto (Desde el 1 de julio al 31 de diciembre de 2026, excepto los días festivos señalados anteriormente) y dentro del horario correspondiente a cada abono. Fuera de este horario, se aplicarán las tarifas en vigor correspondientes.

- El abono no asegura tener una plaza de garaje disponible en el momento. Si al entrar al garaje todas las plazas del mismo estuviesen ocupadas, el/la usuario/a tendrá que esperar a que se libre alguna de ellas.

SEIGARRENA. Txosten juridikoa aldekoa da ondorengo zehaztasunekin:

"1) Baimenak honako baldintzak izango ditu:

- a) bonuak aplikatzeko ordutegia;*
- b) zenbateko ekonomikoa;*
- c) erabilera-baldintzak;*
- d) bateragarritasuna erregimen arruntarekin;*
- e) indarrean jartzeko data.*

2) Gaueko bonu horiek gauekoak baino ez dira izango, eta ez dute plaza-erreserba iraunkorrik izango. Une oro bermatu beharko da txandakako aparkalekuaren zerbitzu publikoak behar bezala funtzionatzen duela.

3) Baimendutako bonuak ezartzeak ez du aldatuko emakidaren oreka ekonomiko-finantzarioa, eta ez dio inolako kalte-ordainik emakidadunari.

4) Erabaki honen eta gaueko bonuak aplikatzeko baldintzen berri ematea, udalaren web orrian eta zerbitzuaren erabiltzaileen ezagutza bermatzeko egoki diren hedabide guztietan argitaratuz.

5) Erakunde emakidadunak behar bezala informatuta eduki beharko ditu erabiltzaileak gaueko bonuen baldintzei, ordutegiei, prezioei eta erabilera-erregimenari buruz, aparkalekuan bertan eta zerbitzuari buruzko informazioa emateko ohiko bideetan ikusgai jarritz."

SEIGARRENA.- Kontu-hartzailetzaren txostenak honela dio:

" Fiskalizazio txostenaren ondorioak:

Prozeduraren fase honetan, erreferentziako espedientea fiskalizatzen da (2026COBR0001) honako emaitza honekin, lehen deskribatutako moduan eta baldintzetan: ALDEKOA "

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- 39/2015 Legearen 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, titularrak baduela gaitasuna administrazio publikoen aurrean jarduteko, eta betetzen dituela baldintzak interesdun izaera onar dakion.

BIGARRENA. 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, 67.4. artikulua honela dio:

“En los contratos de gestión de servicios públicos los pliegos de cláusulas administrativas particulares, además de los datos expresados en el apartado 2, contendrán los siguientes: ...

c) En su caso, tarifas a abonar por los usuarios y procedimiento para su revisión

GAIAREN AZTERKETA

LEHENA.- 2026COBR0001 espedientean izapidetzen ari da, emakidadunak eskatuta, bonu berriak sortzea Alhondegiko aparkaleku publikoaren txandakako solairuan (-1).

BIGARRENA. Osoko bilkurak bonu berriak sortzen baditu, horien prezio pribatuak onartu beharko dira.

HIRUGARRENA.- Txosten juridikoa eta fiskalizazio txostenak aldekoak dira bonu horiek onartzeko. Eta eskatutako prezioak egokiak direla ondorioztatu da.

LAUGARRENA. Alhondigako aparkalekuen tarifak 2026ko urtarrilaren 29an izandako Osoko Bilkuran eguneratu ziren. Tarifen prezioen egunera onartzeko organo eskuduna Osoko Bilkura izan zen, 9/2017 Legeko bigarren xedapen gehigarriaren arabera. Beraz, prezio berri hauek onartzeko organo eskuduna Osoko Bilkura izango da.

Aurrekoa kontuan hartuta, emandako txostenak eta Tolosako Udalaren antolakuntza lan esparruko informazio-batzorde iraunkorrari aurkeztutako proposamena ikusita, 2026ko ekainaren 10ean egindako bilkuran gaia bozkatu zen, eta kide anitzeko organo hori osatzen duten bertaratutako kideen kopuruak aho batez onartu zuen proposamena:

Aldeko botoak: Cristina Pelaez Errazquin, Miren Yosune Sanz Vidal, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Aihnoa Dominguez Landa eta Jose María Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, Batzordeak Udalbatzaren Osoko Bilkurari honako irizpen hau onartzea proposatu dio

IRIZPENA

LEHENA.- Fernando Echezortu Manterolak, ARRAMELE SIGLO XXI, S.A.ren ordezkariak, Alhondiga aparkaleku publikoaren txandakako solairuan (-1) bonu berriak jartzeko eskaera onartu ondoren, prezio pribatuak onartzea, espedientean jasotako baldintzen arabera.

BONU BEREZIAK 1 (Gehienez 40 bonu): Ordutegia 18:00etatik 9:00etara / 180€/bonua

BONU BEREZIAK 2 (Gehienez 50 bonu): Ordutegia 20:00etatik 9:00etara / 120€/bonua

Kopurua eta salbuespen egunak

6 hilabeteko 90 bonu berezi, 2026ko uztailaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartekoak.

Indarrean jartzeko eguna: 2026ko uztailaren 1a.

OHARRA: Ezin izango dira abonua hauek erabili egun hauetan:

IRAILA 17-18	Garagardo azoka
URRIAK 31	Tolosa Goxua
AZAROAK 21	Babarrun Eguna
ABENDUAK 19	Azoka berezia
ABENDUAK 23,24,26,29,30,31	GABONAK

Erabilera baldintzak:

- Bonua proposatutako egutegian (2026ko uztailaren 1etik abenduaren 31ra, lehen adierazitako jaiegunetan izan ezik) eta ordainketa bakoitzari dagokion ordutegiaren barruan bakarrik erabili ahal izango da. Ordutegi horretatik kanpo, indarrean dauden tarifak aplikatuko dira.
- Abonamenduak ez du ziurtatzen unean bertan garaje-plaza erabilgarri izatea. Garajera sartzean bertako plaza guztiak beteta badaude, erabiltzaileak horietako bat libre utzi arte itxaron beharko du.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta, hala badagokio, dagokion publizitatea eta gainerako izapide administratiboak egitea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau dagokion organo eskudunari igortzea, behin betiko onarpena eman dezan

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Miren Yosune Sanz Vidal, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Alhondiga (-1 solairuko) lurpeko txandakako aparkalekuaren zerbitzu publikoaren prezio pribatu berriak.

6. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, EMETERIO ARRESE GIZARTE-ZENTROKO TABERNA USTIATZEKO KONTRATUAREN JARRAITUTASUNA, ALDI BATERAKO ETA SALBUESPENEZ, ETA KONTRATU BERRIA FORMALIZATU ARTE BEHAR DEN DENBORARAKO.

PUNTO 6. APROBAR, EN SU CASO, LA CONTINUIDAD, CON CARÁCTER TEMPORAL Y EXCEPCIONAL, DEL CONTRATO PARA LA EXPLOTACIÓN DEL BAR DEL CENTRO SOCIAL EMETERIO ARRESE, Y POR EL TIEMPO QUE RESULTE NECESARIO HASTA LA FORMALIZACIÓN DEL NUEVO CONTRATO.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2026ko ekainaren 10eko irizpena.

Dictamen de la Comisión Informativa del Ámbito de trabajo de Organización de 10 de junio de 2026.

I. AURREKARIAK

Lehenen.- 2005eko abenduaren 27an egindako ohiko osoko bilkuran, Udalbatzak onartu zuen zentro sozio kulturalaren taberna zerbitzua ustiatzeko kontratua arautuko zuen administrazio baldintza partikularren plegua eta hasiera eman zion lizitazioari. Bertan, Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzen zuen behin betiko esleipena egiteko ahalmena. Pleguaren 9. klausulan hau zehazten da: "Esleipena, alkateak edo Gobernu Batzordeak erabakiko du."

Bigarrenen.- Dagokion iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2006ko otsailaren 10ean (28 zk), ezaugarri hauekin:

I. ANTECEDENTES

Primero.- El Pleno Ordinario de la Corporación en sesión celebrada el día 27 de diciembre de 2005 aprobó el pliego de condiciones administrativas particulares que regiría el contrato de explotación del servicio de bar del centro socio cultural Emeterio Arrese y dio inicio a la licitación. En ella delegaba en la Junta de Gobierno Local la facultad de proceder a la adjudicación definitiva. En la cláusula 9 del pliego se especifica que "La adjudicación será acordada por el Alcalde o por la Junta de Gobierno."

Segundo.- El 10 de febrero de 2006 se publicó el correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 28, con las siguientes características:

- Litzazio prezioa: gutxienez, hileko 100 euro.
- Epea: Hamabost urte, beste bost urtez luzatzeko aukerarekin.

Hirugarrena.- 2006ko martxoaren 20an, Tokiko Gobernu Batzarrak aipatutako kontratua esleitu zion IGNACIO JOSÉ ECHEVERRIA INSAUSTI jaunari, honako baldintza hauekin:

- Prezioa: 100 euro hileko.- Iraupena: Hamabost urte, 2006ko apirilaren 28tik kontatzen hasita, beste bost urtez luzatzeko aukerarekin.
- Gasaren kostua kontratistaren kargura.
- Argindarraren gastuen %50 esleipendunak ordainduko du, baina bost urte igaro ondoren, harekin igoera negoziatuko da.

Laugarrena.- 2006ko apirilaren 7an kontratua formalizatu zen.

